

2021KO PATOJAS BEKEN BOLETINA

2021KO PATOJAS IKASKETA
BEKEN PROIEKTUKO LABURPEN
BOLETINA



PATOJAS
IKASKETA BEKEN
PROIEKTUA

2021EKO IKASTURTEA

Ikasturtea 160 bekadunek hasi zuten. Egun, hainbat arrazoi tarteko, 157 ikasle daude bekarekin. Guztira, 131 *patoja*, %83,44a.

%83+

Bekadunak neskak eta emakumeak izan dira. GUZTIRA 131.

157
IKASLE

2021EKO BEHIN-BEHINEKO DATUAK

		LEHEN HEZKUNTZA		OINARRIZKO HEZKUNTZA		DIBERTSIFIKATUA		GUZTIRA
		NESKAK	MUTILAK	NESKAK	MUTILAK	NESKAK	MUTILAK	
HUEHUETENANGO	TALDEAK							
	TODOS SANTOS					1		1
	IXTAHUACÁN	1	2	3	3	8	2	19
	AJOMAYA	2		6		11	3	22
SOLOLÁ	CHIANTLA					2		2
	CEIBA			3		15		18
	S. L. TOLIMÁN	4		3		4		11
	NAHUALÁ					2		2
	CASA DE LA MUJER			12		8		20
	OXLAJUJ E			7		9		16
SACATEPEQUEZ	S. D. XENACÓJ	2	3	5	2	7	1	20
	SUMPANGO	3	4	5	5	6		23
	GUATEMALA	2	1					3
TOTAL		14	10	44	10	73	6	157



2021 IKASTURTEAREN JARRAIPENA

Ikasturtea urtarrilean hasi zen irakaskuntza pribaturako eta otsailean publikorako eta hezkuntza ministroak irailean jakinarazi zuenez, datorren azaroaren 30ean amaituko da batentzako zein besterako. Beraz, ia ikasturte amaieran aurkitzen garen honetan, hilabete horien laburpena eta ikasturtean izan diren bizipenak eta egoerak azaldu nahi dizkizuegu.

Zuen laguntzari esker Guatemalako 160 neska-mutil hezkuntza sisteman barneratzea lortu dugu aurtan. Ikasturtean zehar, hainbat arrazoiengatik, hainbat baja eta sarrera berri izan ditugu, eta, horien ondorioz, **une honetan 157 beka dauzkagu, horietatik 131 neskatilei, nerabeei eta emakumeei zuzenduak.**

Ildo horretan, azpimarratu nahi dugu bajaren bat hezkuntzara sartzeak dakartzan gastuei aurre egin ahal izateko familiaren baitan izandako arazo ekonomikoen ondorioz gertatu dela. San Ildefonso Ixtahuacanen, lehen hezkuntzako gazte bat hezkuntza sistematik at utzi dute baliabide ekonomikoak ez zituelako. Santo Domingo Xenacojen, dibertsifikazio programan zegoen neskato batek ikasketak utzi ditu lanean hasi behar izateagatik, eta beste batek, berriz, ikasturtearen erdian batez bestekora ez iristeagatik. San Lucas Tolimanen, beste batek, AEBetan bizitza berri baten bila familiak egindako apustuagatik eta Emakumeen Etxeko beketatik dibertsifikazio programako neskak batek eskolak ez ulertzeagatik utzi zuen, klaseak aurrez aurrekoak ez zirelako.

CEIBA taldeko bi ikaslek utzi dituzte ikasketak, bata ezkontzeagatik eta besteak, dibertsifikazio programako ikasleak, ez dakigu zergatik.

Egoera gogorak, baina, zoritxarrez, Gobernuak lan gutxi egiten duen eta Hezkuntzaren aldeko apustu oso txikia egiten duen herrialde honetan, egunetik egunera areagotzen ari direnak.

AURTENGO IKASTURTEA JOAN DEN URTEA BAINO GOGORRAGOA IZATEN ARI DA.

Mineducek (Hezkuntza Ministerioak) eskoletara seguru itzultzeko protokoloak prestatu zituen koronabirusaren hedapena murrizteko asmoz; hala ere, pandemiaren aurrerapenak ez du ikasgeletara itzultzea ahalbidetu.

Zentroak itxita dauden bigarren urtea da, eta, beraz, bekadunek etxetik ikasten jarraitzen dute. Iristen zaizkigun gutunetan azaltzen digutenez, faltan sumatzen dute eskolara joatea, eskolako ikaskideekin denbora eta ikasketak partekatu ahal izatea. Horrez gain, adierazi digute eskolako lanak etxetik egiteko zailtasunak dituztela eta, zalantzarik izanez gero, ez daukatela irakasleari galderak egiteko aukerarik.

Horri guztiari gehitu behar zaio eskolan jasotzen zuten otordua galdu egin dela, eta, beraz, kasu batzuetan elikadura okertu egin dela, herrialdeko desnutrizio-datuak handituz.

"BEKADUN ASKOK, FAMILIARI LAGUNTZEKO, IKASKETAK LANAREKIN UZTARTZEN DITUZTE".

Era berean, egia da, etxean daudenez, gehiago laguntzen dietela familiei etxeko lanetan eta landa-lanetan: ereiten, biltzen eta abereak zaintzen lagunduz. Hori familiei eskaintzen dieten laguntzaren zati txiki bat da; izan ere, familien egoera ekonomikoak okerrera egin du, langabezia handiagoa dago eta aurrera ateratzeko zailtasun gehiago ere. Horregatik, orain gehiago dira ahal duten guztian laguntzen saiatzen direnak, kasu askotan, lanak bilatuz eta ikasketekin uztartuz.



Zoritxarrez, Dibertsifikazio programako ikasketak bukatzen dituzten ikasleek ezin izan dituzte azken ikasturteko praktikak egin. Peritutzan (Turismoa, Enpresen Administrazioa) eta irakaskuntzan, esaterako, aldi horiek oso garrantzitsuak dira, kasu batzuetan, praktikak amaitzean, aldi baterako kontratuak lortzen baitituzte lantokietan.

Une honetan pandemiak kutsatze eta heriotza maila altuarekin jarraitzen du. Urriaren 24an Cesar Armando Pérez Marroquinek prentsa librean argitaratutako artikulua batean adierazi zuen "Pizgarria da ordu lehorra 9etatik 10etara igaroko dela", Giammatteik agindu baitu lege lehorraren ordutegia murriztuko duela txertoak gora egiten badu. Azken datuen arabera, herritarren %48,83k txertoaren dosi bat jaso du, eta %29,19k bi dosiak eman ditu. Guztira 8.266.044 dosi jarri dira.

GUZTIRA 8.266.044 TXERTO JARRI DIRA.

Nabarmentzen den beste alderdi bat da txertaketak gora egin behar duela metropoli-eremutik kanpo, eta horrek, jakina, komunikatzeko gaitasuna eskatzen duela: kultura-egokitasunarekin eta txertatzen ari ez diren komunitateekin dauden oztopoak gainditzeko helburuarekin.

**HELBURVA 2022KO OTSAILAREN 1SEAN
1,4 MILOI ADINGABE TXERTATUTA
EGOTEA DA, IKASGELETARA ITZUL AHAL
DAITEZEN.**

Txertatzeak azaroaren eta otsailaren lehen hamabostaldiaren artean izango ziren.

Eskutitzetan irakurtzen dugunagatik, horietako askotan ardura antzematen da: gaixotasunari dioten beldurragatik eta ziurgabetasunagatik. Batzuk kutsatu egin dira, baita askoren familiak ere eta badira gaixotasunagatik bizitza galdu duten irakasleak ere. Bizipen oso gogorrak dira, eta kezka handiz jarraitzen dugu egoera, baina ahalegin handia egiten dugu proiektuak beste 25 urtez bizirik jarrai dezan.



HAU DA KONTATZEN DIGUTENA...

"JATEKO ZENTIMO BATZUK IRABAZTEKO LAN EGITEN DUT".

San Ildefonso Ixtahuacan Huehuetenango Guatemala

Le envío un fraternal y respetuoso saludo a usted querida madrina espero que te encuentres muy bien de salud como en tus labores a diarios que Dios la bendiga y cuide siempre a usted y a tus seres queridos que estan a tu lado en tu humilde hogar.

En primer lugar le agradezco a Dios porque me regala cada día de vida y muchos motivos más para seguir adelante de seguir luchando por mis sueños mis metas porque se que puedo cumplirlo aunque en estos tiempos de pandemia las clases se dan a distancia porque los casos de COVID seque por esa razon las clases son virtuales y no presenciales pero no por esa razon yo voy a dejar de luchar al contrario hay que hechar más ganas de hacer los trabajos lo más pronto posible y de sacar una buena nota y no desaprovechar la oportunidad que me da la vida y tanto como en el estudio y lucha trabajar para ganarse la vida y tener unos centavos con que comer, en mis días libre voy a trabajar con una señora para cuidar de su casa y de sus hijos.

**PERITO CONTADOR 5. MAILAKO 17 URTEKO IKASLE BATEN
ESKUTITZA. SAN ILDEFONSO IXTAHUACÁN.**

¡LEHENENGO PERTSONAN!

BATXILERGOKO 1º MAILA IKASTEN DAGOEN 29 URTEKO AMA BATEN ESKUTITZA.

Panajachel Sololá 09-08-2021

Esperando que se encuentren bien de salud a lado de su familia y deseandoles exitos en sus labores diarias.

El motivo de la presente es para darles las gracias por el apoyo brindado a mi persona, les agradezco de todo corazón. **Quiero contarles que las clases siguen de la misma manera, cada bimestre nos entregan folletos donde nosotros debemos realizarlos en casa y si tenemos dudas llamamos a la maestra y se recibe una hora de clases yo bajo los días martes de 8:00 a 9:00 que por motivo de la Pandemia que estamos viviendo los casos siguen aumentando.**

Lamentablemente mi esposo dio positivo ya que en su trabajo una compañera era portadora, lo de salud nos dijeron que debíamos quedarnos en casa por 15 días y mantener distanciamiento con nuestra familia, conocidos y amigos. Mi esposo empezó a tomar los medicamentos que le indicaron, **yo tome precaución pero a los 5 días yo di positivo informe al colegio a los 3 días de que yo diera positivo le realizaron las pruebas de isopado a mis 2 niñas, una de 7 años y de 10 años.**

Mis niñas una dio positivo y la de 7 años dio negativo en ese momento le pedi mucho a Dios que nos guardara y que diera fuerzas para salir adelante.

Mi nena de 7 años se fue con la abuela la alejaron de nosotros por 15 días para que ella no se llegara a contagiar, cada día me levantaba, hacia mi limpieza trataba de distraerme para que no me afectara psicológicamente, jugaba con mi nena que también había dado positivo me mantuve siempre firme y mi fe puesta en Dios. mi familia y personas conocidas nos venían a dejar cosas para comer, como frutas, verduras, pollo, y lo de consumo diario.

Yo extranaba mucho a mi otra nena ya que siempre hemos sido muy unidas.

A mi esposo si le afectó un poco a la salud ante ese virus, si le causó mucha fiebre, frío, debilidad en su cuerpo, pero yo me dediqué a cuidarlo y darle sus medicamentos incluso yo le inyectaba para que la fiebre disminuyera y así fue recuperándose. En cambio mi nena gracias a Dios no le afectó en nada ni a mi tampoco tomábamos nuestros tratamientos y nos manteníamos activas todo el día lo que si nos aburríamos mucho por estar encerradas pero es parte de las recomendaciones del centro de salud.

Pasaron los días mi esposo se recupero y nosotras también luego nos dieron de alta de la cuarentena los de salud, nos volvimos a reunir como una familia de nuevo mi otra nena que no había dado positivo regreso con nosotros ya que los 3 dimos negativo después de los 20 días que habíamos dado positivo.

Le di las gracias a Dios por habernos guardado y que había protegido a mi familia y a mi también. **Ahora ya me incorpore de nuevo en mis clases y seguire luchando hasta el final quiero y deseo obtener mi título y no darme por vencida nunca** si Dios me da la oportunidad de vivir yo no quiero desperdiciar mi vida ni mis sueños.

Yo le pido mucho a Dios que los bendiga y los guarde siempre por que **sin el apoyo de ustedes me fuera más difícil ya que la economía día a día está muy mal y a mí me costará más seguir estudiando.**

Siempre doy lo mejor de mí, me gusta aprender cosas nuevas se que es para mí bien.


Los quiero mucho, y que Dios los bendiga.

25 URTE ZORIONAK!

Proiektua osatzen duten bekadun guztientzat hain zaila izan den urte honetan, ospakizunerako aukera hau aprobetxatu nahi dugu eta eskerrak eman nahi dizkizuegu zuei esker 25 urte bete ahal izan ditugulako.



Eskerrak eman nahi dizkizuegu lehen egunetik proiektuan sinetsi duzuen guztioi, eta bereziki gogoan izan nahi ditugu jada gure artean ez dauden pertsonak. Ez dugu aukera galdu nahi **25 URTE HAUETAN PROIEKTUTIK IGARO ZARETEN GUZTIEI ESKERRAK emateko**. Zuen laguntza guztia oso baliagarria izan da eta lanean jarraituko dugu proiektua jende gehiagoren artean ezagutzera emateko.



Taldeetako arduradunei ere aipamen bereizi bat egin nahi diegu, Guatemalatik egunero egiten duten kudeaketagatik. 1997. urtean Román Stop eta gero Felipa Jiménez lehenengo urratsak ematen hasi zirenak izan ziren. Geroago beste asko etorri dira.

Melina Yol Chiquitó (*Sumpango*), Marta Lidia Chile (*Santo Domingo Xenacoj*), Juan Jiménez Noj (*AJOMAYA, San Ildefonso Ixtahuacán*), Vicky Maldonado Arreaga

(*San Lucas Tolimán*), María Batres (*Asociación Nuevos Horizontes, Xela*), Olga Cumatz (*Oxlajuj E*), Felisa Torres (*CEIBA*), Andrea Morales eta Miriam (*Casa De la Mujer*), D. Manuel Tambriz (*Nahualá*), Hermanas Virginia, Higinia, Juana (*Sagrada Familia, Chiantla*), Magdalena Pérez (*Todos Santos*) eta Euskal Herriko Rafael Mañeru, María Mañeru, Charo Clement, M^aCarmen Caminero, Irene Raya... Mila esker zuen lan eskuzabalagatik eta baita Patoja Bekak Proiektuan sinesteagatik ere.

ESKERRIK ASKO 25 URTE HAUETAN PATOJA BEKEN PROIEKTUAREN PARTE IZAN ZARETEN AMABITXI, AITABITXI ETA ARDURADUN GUZTIEI.

Oroitzapenerako une hauetan, **EntreMundos aldizkariak egin zigun eta bere garaian bidali genizuen erreportaje honekin uzten zaituztegu, uste baitugu interesgarria izan daitekeela gure 25. urteurrenean egiten ari garen ibilbide honetan berreskuratzea.** Guatemalan argitaratzen den aldizkaria da hau, Guatemalako eta Erdialdeko Amerikako gizarte-gai garrantzitsuen inguruan bertako eta atzerriko kontzientziak piztea du helburu. Aldizkari honekin batera lanean ari gara Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak finantzaturako "Guatemala-Euskal Herria Justizia eskatzen duten Emakume Askotarikoen Ahotsak" proiektuan.

entremundos.org/revista/juventud/proyecto-patojas-25-anos-apoyando-a-la-educacion-en-guatemala/

25 urte hauetan denetarik bizi izan dugu baina Beka Komisio bezala jarduteak ematen dizkigun gauza on guztiekin geratzen gara. Urte hauetan zehar, beka komisioak gonbidatua izan den hainbat azokatan parte hartu du Guatemalako eskuz landutako produktuen bidez bertako hainbat kooperatibaren lana ezagutzera emateko helburuarekin. Gune horiek aukera ezin hobea izan dira, eta hala izaten jarraituko dutela espero dugu, Patoja Beka Proiektuari buruzko informazioa emateko, bai eta postura hurbiltzen diren amabitxiak eta aitabitxiak agurtzeko eta haiekin harremanetan jarraitzeko ere.



25 URTEKO HISTORIA



1999. URTEA LEHENENGO PROMOZIOA

Proyecto Patojos-eko lehenengo promozioa graduatzen da.



2003. URTEA SAN ILDEFONSO IXTAHUACÁN

Patojos Proiektuko eremuak zabaltzen jarraitzen dugu, eta urte honetan, San Ildefonso Ixtahuacanera iritsi ginen, Huhtenangora.



2006AN PATOJOS BEKEN 10. URTEURRENA.

10. urteurrena ospatu genuen hainbat amabitxi eta aitabitxi Guatemala egindako bidaia batekin, Beken Batzordeko ordezkari batekin batera. Elkarlanean ditugun elkarteak bisitatu eta Todos Santos, ibilbide honekin hasi ginen herrialdean, ospakizun zentrala antolatu genuen.



2007. AJOMAYA ASOCIACIÓN DE JÓVENES MAYAS MAM

Ikastaroa San Ildefonso Ixtahuacaneko AJOMAYA Elkarteak gazteentzako Bekekin hasi genuen.



2010. URTEAN 229 BEKA

Hezkuntzan sartzeko aukera izan zezaten 229 beka banatu ziren urte honetan. 25 urte hauetako zifrarik altuena.



2016AN 20. URTEURRENA

*Erakundearen barne-analisia egin ondoren eta Hezkuntzan genero arrakala murrizteko helburu nagusiarekin, neskei eta emakumeei beka eskaintzeari lehentasuna ematea erabaki zen. Aurten, Proiektuaren izena ere aldatu zen eta **Patojas Bekak** izena hartu zuen.*



2019. URTEA SOLOLAKO EMAKUMEEN ETXEA

Lankidetzarako Proiektuekin lankidetzan jarraituz, indarkeriatik bizirik irauten duten emakumeen etxeko emakumei eta haien alabeei beka eskaintzen hasi ginen.



2021EAN 25. URTEURRENA

2021era arte, ia 5.000 beka banatu dira Guatemalan. Orain zure momentua heldu da. Animatzen zara?

1997 URTEA. "PROYECTO PATOJOS-EN" HASIERA.

Lehenengo ikastaroa, oinarrizko eta dibertsifikatuko 10 bekadunekin hasten da, Todos Santos Cuchumatán, Huehuetenangon.



2000. URTEAN CHIANTLA ETA NAHUALARA HELTZEN GARA.

Herrialdeko hainbat eremutako beharrak ikusita, Chiantlako, Huehuetenangoko Colegio de la Sagrada Familia eta Nahualan, Sololá departamenduan, beka ematen hasi ginen.



2005. SEFCA-REKIN BEKAK

Urte honetan, SEFCArekin (Erdialdeko Amerikako Prestakuntza Ekumeniko Zerbitzuak) lankidetzan hasi ginen, zeinekin jada Alta Verapazen eta Sacatepequezen Sumpango eta Santo Domingo Xenacojen Lankidetzak proiektuak egiten ari ziren.



2006AN NUEVOS HORIZONTES ELKARTEAREKIN

Xela, Quetzaltenangoko Nuevos Horizontes Elkarteari Bekak ematen dizkiogu. Beraiekin dagoeneko, lankidetzeko proiektuetan, indarkeriatik bizirik irten diren emakumeen aterpetzean elkarlanean aritu gara.



2008. URTEAN JARRAIPEN BIDAIA

Beken Batzordeak lankidetzan aritzen diren elkarte eta talde guztiak bisitatzen ditu.



2012AN SUMPANGO ETA SANTO DOMINGO XENACÓJ.

2011n SEFCArekin elkarlana amaitu ostean, Sumpango eta Santo Domingo Xenacojeko taldeak modu independentean sartu ziren.



2018. BEKAK TOLIMANEN ETA LANKIDETZA PROIEKTUETAN

Sololako, San Lucas Tolimaneko neska eta emakumei eman genizkien lehen beka.

2018ko erroldaren arabera, emakumeek eskolara joan ezin izateak salatzen dituzten arrazoi nagusiak etxeko lanekin (%97), haurdunaldiarekin (%98,5) eta pertsonen zaintzarekin (%93) lotuta daude, guzti honengatik, beka ematea erabaki genuen. CEIBA erakundetik hasi ginen EA-LA lankidetzak proiektuen barruan.



2020EAN OXLAJUJ E ELKARTEA

Maia Emakumeen Oxlajuj E Elkartearekin elkarlanean hasi ginen "Maya Kaqchikel Emakumeak Lurraldearen, Gorputzaren eta Lurraldearen Defentsa eta Jabakuntza Integrala indartzuz" proiektuarekin. 17 beka ematen dira emakume gazteek ikasketak jarraitzeko.



LEHEN PROMOZIOAREN OROITZAPENA

1999tik gaur arte ...

1999an, ikasketak 1997an hasi zituzten 10 pertsona graduatu ziren: 5 neska eta 5 mutil. Ikasketetan zehar egindako ahalegin guztia aitortzen diegu, eta horietakoren batek, gaur egun, modu batera edo bestera lotuta jarraitzen du aurten 25 urte betetzen dituen Patojak Beka Proiektuarekin.

Raúl Pérez Ramosen hitz hauek jaso ditugu gure urteurrenagatik zorionak emanez eta berak proiektuarekin izandako esperientzia kontatu digu:

*“Zorionak eta eskerrik asko egin duzuen lanagatik eta Patojos bekak programagatik. Lehen hezkuntzako irakasle bezala graduatu nintzen eta, lanbide horretan lan egiteak, unibertsitateko ikasketak ordaindu ahal izatea ahalbidetu zidan. Orain abokatu notarioa naiz Todos Santos Cuchumatzen. **Hainbat gara udalerrian proiektuari esker gure ogibideen bitartez honaino heldu garenak.** 1997an beka jasotzearen zortea izan nuen. Dibertsifikazioa hasi behar genuen eta ez zen posible hura gure herrian egitea. Huehuetenango hiriburura joan behar ginen eta denok ez geneukan hara joateko garraioa ordaintzeko modurik. Nik ez neukan nola ordaindu eta proiektuak lagundu zidan. **Aro garrantzitsua da, maila horretan (dibertsifikazioa) jasotzen baitute ikasleek lanbide bat lortzeko behar den prestakuntza”.***

Era berean, Edvyn Geovany Tello Tello ezagutu dezazuen nahi dugu, Patojos-eko proiektuaren oinarritzko lehen promoziokoa, eta hau da berak kontatu diguna: *“oinarrizko mailan eta dibertsifikazioan jaso nuen beka. Guztira sei urtetan zehar jaso nuen programaren parte ziren pertsonen laguntza ekonomikoa: bihotz oneko pertsonen laguntza, baliabide ekonomikoak soberan izan gabe ere, beste herrialdeetako gazteek aurrera egin dezaten laguntzeko asmoa duen jendea”.*



Berak gogoratzen duen bezala, *“asko dira bizitzan zehar gogoratzeko geratzen diren pasadizoak, **ikasketa arloan kultura ezberdinen garrantziaz jabetzen gara, beti egongo da diskriminazioa, baina hori ez zen ez uzteko oztopoa izan. aurrera eta garaile”.***

Eta are garrantzitsuagoa dena *“batzuetan ez diogu ikasteari garrantzirik ematen, baina gure herriak bizi duen errealitatea ikusten dugunean, ikasketak bizirik iraun ahal izateko ezinbesteko likidua dela konturatzen gara. Egun, oinarritzko produktuen prezioak gora egin dute. **Lanbide bat izanda, soldata bat daukagu eta horrekin gure eguneroko bizitzako gastuei aurre egin ahal diegu”.***

“ESKERRAK EMAN NAHI DIZKIEGU HERRI HONETAKO GAZTEEI PRESTAKUNTZA AKADEMIKOAN ONTASUNEZ LAGUNDU DIETEN AITABITXI ETA AMABITXI GUZTIEI”

Egungo egoerari erreferentzia eginez, Raulek dio: *“Ikasketak oso garrantzitsuak dira; Hala ere, Guatemalan ez du eragin handirik zentzu ekonomikoan langabezia-tasa gehiegizkoengatik eta jasotako soldata baxuengatik; ez dute ikasten jarraitzeko motibatzen, horregatik gazteen zati handi batek ez ikastea hautatzen du”.*

Horretaz gain, Guatemalako erakundeetatik, urtero hezkuntzan inbertsioak murrizten ari dira eta **Entreamigos- Lagun Artean** eta beste hainbat erakundek, gure Patojas Becas proiektuarekin, *patoja, patojo* eta emakume guzti horiei laguntzen saiatzen gara. Beken Batzordetik Hezkuntza ezinbestekoa dela defendatzen dugu eta hori da, gero eta gazte eta emakume gehiagori iristeko apustua egiten jarraitzera eramaten gaituena.



GUATEMALA GAUR EGUN

Gure bekadunen ikasturtea nolakoa izan den azaldu ondoren, orain herrialdeko egungo errealitatera hurbiltzea dagokigu. Covid-19aren pandemiak gogor astintzen jarraitzen duen herrialdea da, baina egunero handitzen ari dira feminizidio kasuak, neskato gazteen haurdunaldiak, bortxazko desagertzeak, gosea, hondamendi naturalak etab. Guatemalak 2021 suntsitzailea izan du zentzu askotan, eta hobetzeko zantzu gutxi daude.

Cristina Chiquín Rodríguez fotokazetari guatemalarraren esanetan, **hainbat astetan zehar iraungitako milaka dosi alferrik galdu dira.**

“Aste honetan 3.000 dosi inguru barreiatuko dira ez direlako inokulatu: ez dago behar besteko pertsonalik ezta baliabiderik”.

"NESKEN ETA EMAKUMEEN HEZKUNTZARAKO SARBIDEA BULTZATU ETA LAGUNTZEN DUGU

Covid-19ari dagokionez, gaur egun, **birusa lurralde nazional osoaren %88.23an zehar dago hedatuta**, eta Gobernuak eta bere alertek duela urtebete baino gehiago ezarri zen koloredun semaforoaren bidez emandako datuen arabera (udalerri bakoitzean ematen diren kasuen arabera, alerta gorria, laranja edo horia izan daiteke), une honetan Guatemalak 300 udalerri gorritz ditu eta adituek azaltzen dute zergatik izan litekeen egoera okerragoa.

Horiek diotenez, agertoki gorri batetik laranja batera aldatze hutsak ez du berekin eraman behar osasun- eta higiene-neurriak lasaitzea, hori baita une honetan gertatzen ari dena, eta, horregatik, gero eta pertsona gehiago ari dira kutsatzen.

“Osasun Sailak gaizki interpretatzen ditu Covid-19 alerten semaforoko datuak, eta ez dauka bestelako informazio garrantzitsurik.”

<https://www.prensalibre.com/guatemala/comunitario/semaforo-covid-19-guatemala-tiene-300-municipios-en-rojo-y-expertos-explican-por-que-el-escenario-podria-ser-peor/>

Datu ofizialen arabera, 2020ko martxoaren 13an Covid-19aren lehen kasua eman zenetik 13.000 pertsona hil dira birusaren eraginez. Azken hilabete hauetan Guatemalan heriotzen areagotzen bat ematen ari da, baita kutsatzeen eta ospitaleratzeen artean ere. Guzti hori txertaketa-prozesu oso motel baten erdian.

Horri gehitu behar zaio txertoen kopuruen eskasia eta etxe ekoizleekin farmako gehiagoren negoziazioetan egoten ari den opakotasuna.

<https://www.prensalibre.com/guatemala/comunitario/guatemala-suma-otros-41-muertos-por-covid-19-y-supera-la-barrera-de-los-13-mil-decesos-a-causa-de-la-enfermedad-breaking/>

Egoera horrek herrialde osoko gazteek ondoriorik bortitzenak jasan ditzaten eragin du beste behin ere. Denbora guzti horretan zehar herrialde osoko ikasle askok eskolak etxetik jarraitzera behartuta ikusi dute beraien burua. **Guatemala aurrez-aurreko sistema batetik sistema birtual batera jauzi egiteko prest dagoela uste al duzu?** Dagoeneko bi ikasturtez luzatzen ari den aldi-digital, -birtual edo -hibrido hori guztia ikasleei kalte egiten ari zaie. Baliabide teknologikorik eta Interneterako sarbiderik ez duten ikasleak.

<https://www.plazapublica.com.gt/content/educacion-la-gran-afectada-por-la-pandemia>

Hondurasen ondoren, Guatemala Erdialdeko Amerikako bigarren herrialdea dela kontuan hartuta, eskolatzeko urteetako batez bestekorik txikienarekin Covid-19aren krisiak hezkuntzan ere izan du eragina du. Munduko Bankuak egindako azterketen arabera, ikastetxeak 13 hilabetez itxita egotean, Guatemalako eta **Guatemalako ikasleen batez besteko eskolatzeko-aldia 6.3 urtetik 4,8ra igaroko liteke.**

GUATEMALAK ESKOLATZE-ALDIAREN 1,5 URTE GAL DEZAKE ESKOLEN ITXIERAGATIK.

Eskolen itxiera luzeak, batez ere eskola publikoenak eta landa-eremuetakoak, eragin negatiboa eta oso gogorra sortzen ari da gazteen eskolatzean, baina baita haien bizitzako beste esparru askotan ere.

<https://www.prensalibre.com/guatemala/comunitario/guatemala-puede-perder-1-5-anos-de-escolaridad-por-el-cierre-de-escuelas/>

2021eko lehen 6 hilabeteetan neskek eta nerabeek izan dituzten 55.000 haurdunaldi-kasuak kasualitatea direla uste al dugu?

2021EAN ZEHAR 7.900 ADINGABE AMA IZAN DIRA. (SEXU ETA UGALKETA OSASUNAREN BEHATOKIAREN DATUAK).

10 eta 17 urte bitarteko umeak ama izan nahi dutela pentsatzen dugu?

<https://www.nuevatribuna.es/articulo/global/guatemala-violenciamachista-55000embarazos-ninas-adolescentes-2021/20210721135035189627.html>

Eskolak gune seguruak dira familiartekoez inguratuta bizi diren eta askotan abusuak jasaten dituzten eta oso gaztetatik ama bihurtzen dituzten neska eta emakume horientzat. Egoera horiek areagotzen ari dira Guatemalan, Hezkuntza Sailak on-line prestakuntza mantentzeko eta eskolak ixteko proposamenarekin, neskatoentzat kalte larriak ekarri ditu erabaki horrek.

Nazio Batuen Erakundeak, 2018an Guatemalan argitaratutako txosten baten arabera, nerabegaroko haurdunaldiak haurren eta nerabeen hezkuntza-, lan- eta osasun-ibilbideetan ez ezik, haien familietan, komunitateetan eta gizartean ere ondorioak dituela zioen.

<https://www.prensalibre.com/guatemala/comunitario/mas-de-7-mil-900-menores-de-edad-han-sido-madres-en-guatemala-durante-2021-segun-osar/>

Guatemala, Latinoamerikan desnutrizio kronikoaren tasa handiena duen herrialdea da: 5 urtetik beherako umeen % 46,5ak pairatzen du, miloi bat ume baino gehiagok. Zifrak are larriagoak dira landa-eremuetan eta eremu indigenetan, hala nola ipar-mendebaldean; izan ere, ia hirutik bik elikagai falta dute bertan.

Eskolak irekita edukitzea ezinbestekoak da, eskola-bazkariak baitira haur askorentzat eguneroko elikadura-iturri bakarra. Datu hauek izan behar dira eskolak berriro zabaltzeko planen lehentasuna. Elkarlanean dihardugun Guatemalako erakunde aliatuen arabera (CEIBA) *"eskolan ematen den otordua izaten da askotan etxean jaten duten artoa eta indaba ez den elikagai bakarra. Eskolak itxita egonda, ez dute otordu hori jasotzen"*.

<https://elpais.com/planeta-futuro/2021-05-28/guatemala-la-necesidad-de-invertir-en-nutricion.html>

Eta ezin ditugu aipatu gabe utzi 2021ean Guatemalan bizi izan dituzten 3 euri-ekaitzak. Parean zegoen guztia suntsitu duten ur eta lohi uholdeak. Herrialde osoan zehar jasan dituzte ekaitzen eraginak eta zenbait tokitan isolatuta geratu dira komunitate eta udalerri osoak.

<https://www.prensalibre.com/ciudades/en-imagenes-lluvias-de-las-ultimas-horas-en-guatemala-dejan-45-mil-personas-afectadas-una-menor-fallecida-y-cientos-de-evacuados/>

Covid-19aren krisiak areagotu baino ez du egin larrialdi-egoerei aurre egiteko orduan Guatemalako Gobernuak hartzen dituen neurri hutsak. Herrialdean lan egiten dugun GKEetatik hainbat proiekturen bidez arintzen saiatzen gara egoera hori neurri ezberdinekin, hala nola, *"Patojas Ikasketa Bekak"* ikasketa-beken bidez edo Entreamigos-Lagun Artean elkartetik herrialdean lagun ditugun beste erakunde batzuekin batera bultzatzen ditugun lankidetzaproiektuen bidez.

Beken Komisia: Araceli, Madalen, Nati y Nely.